

EBAZPENA ENPRESAREN EKONOMIA (2025eko maiatza)

GALDERA TEORIKOAK:

1) 1,5 puntu gehienez. Letra lodiz dauden puntuak kontuan hartzea.

a) Ekonomia mistoa:

- **Ekonomia planifikatuko eta merkatu-ekonomiako bi sistemen ezaugarriak konbinatzen dituen sistema da.** Erabaki ekonomiko gehienak eskaintzaren eta eskariaren legeen pean hartzen dira merkatuan, baina Estatuak esku hartzen du merkatuko ekonomiak zituen eragozpen guztiak zuzentzeko: ezegonkortasuna, enpresa handien gehiegikeriak, kutsadura eta desberdintasun ekonomikoa. Beraz, merkatuaren eta Estatuaren arteko nahasketa egongo da.
- **Esku-hartze horiekin, Estatuak zenbait jarduera garatzen ditu helburu sozialak eta banatzaileak (berdintasuna) lortzeko.** Horretarako, zergak biltzen ditu eta diru publikoa gastatzen du herritar guztiak duintasunez bizitzeko gutxieneko baliabideak lor ditzaten. Horrenbestez, Estatuak arduratuko da osasun-arretari, oinarritzko hezkuntzari, etxebizitzari, elikadurari eta diruari arreta emateaz, langabezia edo zahartzaroan.
- **Erabakiak hartzea.** Kasu gehienetan, merkatuak arduratuko dira zer, zenbat, nola eta norentzat ekoitzi behar den zehazteaz, baina Estatuak zainduko du desorekarik ez dagoela, eta, halakorik gertatzen bada, esku hartuko du horiek konpontzeko.
- Gaur egun, ia herrialde guztiak funtzionatzen dute ekonomia mistoaren sistemaren pean, eta sistema hori gertuago egon daiteke merkatu-ekonomiatik edo ekonomia planifikatutik, ideologiaren eta egoera ekonomikorekin arabera, baina beti izango du bietatik pixka bat.

b) Plangintza zentraleko edo planifikatuko ekonomia:

- **Ekoizpen-faktoreen jabetza publikoa da.** Estatuak produkzio-faktoreetako edozein du. Beraz, langile guztiak funtzionarioak dira, etxebizitzak Estatuaren jabetzakoak dira, baliabide naturalak, lantegiak, enpresak...
- **Prezioak esku hartuta daude.** Prezioak finkatzen dituen merkaturik ez dagoenez, Estatuak prezio batzuk finkatzen ditu erosiko diren ondasunen arabera. Ondasun jakin bat erostea nahi duenean, prezioak jaitziko ditu. Ondasun baten kontsumoa geldiarazi nahi badu, prezioak igoko ditu.
- **Planifikatutako ekoizpena.** Estatuak 4 edo 5 urte iraun dezaketen planen bidez zehazten ditu ekoizpena eta neurriak.
- **Helburua:** Errentaren berdintasunezko banaketa. Estatuak gizarte-ongizatea bermatu nahi du, eta gizarte osoarentzat beharrezkoak diren zerbitzuak eta ondasunak eman. Horretarako, aberastasunaren banaketa bidezkoa eta berdintasunezkoa bermatzen du biztanle guztien artean.
- **Eraginkortasunik eza.** Horrelako sistemek produktibitate-tasa txikiak erakutsi dituzte, planifikatzeko arazoak, gehiegizko burokrazia edo langileak motibatzekeko pizgarriak eza direla eta.

2. Azal itzazu erantzukizun mugatuko sozietatearen ezaugarri nagusiak (1,5 puntu)

- Bazkide kopurua bat edo gehiago izan daiteke. Bazkide bakarra badago, sozietateak "persona bakarreko sozietate mugatua" izena hartuko du.
- Bazkideen erantzukizuna jarritako kapitalera mugatzen da. Beraz, ez dute beren

ondarearekin erantzuten zorren aurrean.

- Gutxieneko kapital soziala 1 €-koa da (ez dago gehipenezkorik), 2022ko urriko lege berriaren arabera (lehen 3.000 € ziren). Kapital hori partaidetza berdinetan, metagarrietan eta zatiezinetan banatuta dago (ez dute burtsan kotizatzen).
- Partaidetzen eskualdaketa librea da bazkideen edo familiakideen artean, baina, beste pertsona bati transferitu nahi bazaio, gainerako bazkideek baimena eman beharko dute.
- Ordaindu beharreko zerga sozietateena da.

PROBLEMAK:

1) Errentagarritasun-atalasea:


a. Adierazi produktu honen itopuntua. 0,5 puntu.

$$KF = 8.000 + 7.000 + 5.000 = 20.000€$$

$$N = \frac{KF}{P - KA_u} = \frac{20.000}{10 - 6} = \frac{20.000}{4} = 5.000 \text{ ale}$$

5.000 unitate salduta, ez da etekinik lortzen, ezta galerarik ere. Gastuak eta sarrerek berdinak dira. Kopuru handiagoa saltzen bada, etekinak lortuko dira, eta, kopuru hori baino gutxiago saltzen bada, galerak izango dira.

b. Irudikapen grafikoa. 0,5 puntu



c. Enpresak 10.000 ale ekoizten baditu. 0,5 puntu.

10.000 ale ekoizturik;

- $Gastuak = KF + KA_u \cdot N = 20.000 + 6 \cdot 10.000 = 80.000 €$
- $Sarrerek = 10 \cdot 10.000 = 100.000 €$ lortuko ditu
- $Eraitza = Sarrerek - Gastuak = 100.000 - 80.000 = 20.000 €$

d) Gehieneko ekoizpen-ahalmena 4.000 unitatekoa bada. 0,5 puntu.

- Gehieneko ekoizpen-ahalmena 4.000 unitatekoa bada, ez galdu eta ez irabazteko, honela izan beharko litzateke:
- $N = \frac{KF}{P - KA_u} = \frac{20.000}{10 - 6} = 4.000$

- $20.000 = 4.000 \cdot (Pv - 6)$
- $20.000 = 4.000Pv - 24.000$
- $20.000 + 24.000 = 4.000Pv$
- $44.000 = 4.000Pv$
- $p = \frac{44.000}{4.000} = 11 \text{ € izango da ez galdu eta ez irabazteko prezioa.}$

2) Inbertsioak hautatzea.

a) Payback (0,5 puntu ebazteagatik eta 0,5 puntu behar bezala arrazoitzeagatik)

A proiektua: hirugarren urtearen amaieran $10.000 + 12.000 + 18.000 = 40.000 \text{ €}$ -ko inbertsioa berreskuratzen da. Inbertsioa berreskuratzeke, 3 urte behar ditu. Proiektua onartu egin da.

B proiektua: bigarren urtearen amaieran $30.000 + 40.000 = 70.000 \text{ €}$ -ko inbertsioa berreskuratzen da. Inbertsioa berreskuratzeke, 2 urte behar ditu. Proiektua onartu egin da.

C proiektua: inbertsioa bigarren eta hirugarren urteen artean berreskuratzen da: $15.000 + 20.000 + 30.000 = 65.000 \text{ €}$. Inbertsioa 50.000 eurokoa da, eta 15.000 euroko soberakina du. Hiruko erregela bat aplikatuz, hau egin behar dugu:
 $n = 15.000 / 30.000 = 0,50 \text{ urte.}$
 Inbertsioa berreskuratzeke 2,50 urte behar ditu, hau da, 2 urte eta 6 hilabete. Proiektua onartu egin da.

Lehentasun-ordena hau da: B, C eta A.

Beraz, kasu honetan, B aukera aukeratuko genuke, hori baita inbertsioa azkarren berreskuratuko dugun kasua.

b) BEGa kalkulatzeko (0,5 puntu ebazteagatik eta 0,5 puntu zuzen arrazoitzeagatik)

Proiektuak:

$$A = -40.000 + \frac{10.000}{1,10^1} + \frac{12.000}{1,10^2} + \frac{18.000}{1,10^3} + \frac{24.894}{1,10^4} = 9.534,87 \text{ €}$$

$$B = -70.000 + \frac{30.000}{1,10^1} + \frac{40.000}{1,10^2} + \frac{5.000}{1,10^3} + \frac{3.000}{1,10^4} = -3.863,81 \text{ €}$$

$$C = -50.000 + \frac{15.000}{1,10^1} + \frac{20.000}{1,10^2} + \frac{30.000}{1,10^3} + \frac{10.000}{1,10^4} = 9.534,87 \text{ €}$$

BEGa inbertsio-irizpide bat da, proiektu edo inbertsio baten kobrantzak eta ordainketak eguneratzean datzana, inbertsio horrekin zenbat irabazi edo galduko den jakiteko. Horretarako, uneko kutxa-fluxu guztiak interes-tasa jakin batean deskontatzen dira. BEGak proiektuaren errentagarritasun-neurri bat adieraziko du termino absolutu garbitan, hau da, moneta-unitateen kopuruan.

Errentagarritasun handiena duten proiektuak bi dira: A eta C.

3) A2 enpresak 2024ko abenduaren 31n eurotan baloratutako ondare-elementu hauek aurkeztu zituen bere kontabilitatean:

a) Kapital soziala: 198.200

b) Egoera-balantzea:

AKTIBOA		PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA	412.600	ONDARE GARBIA	228.200
271 ERAIKINAK	170.000	100 KAPITAL SOZIALA	198.200
218 GARRAIO ELEMENTUAK	100.000	112 LEGEZKO ERRESERBA	30.000
216 MAKINAK	220.000	PASIBO EZ-KORRONTEA	200.000
281 IBILGETU MATERIALAREN AMORTIZAZIO METATUA	-77.400	170 KREDITU-ERAKUNDEEKIKO LUZERAKO ZORRAK	200.000
AKTIBO KORRONTEA	110.600	PASIBO KORRONTEA	95.000
Izakinak	40.000	400 HORNITZAILEAK	30.000
300 IZAKINAK	40.000	410 ZERBITZU-EMATEAGATIKO HARTZEKODUNAK	5.000
Egingarria	59.000	520 KREDITU-ERAKUNDEEKIKO EPE LABURREKO ZORRAK	60.000
430 BEZEROAK	44.000		
431 BEZEROAK, KOB RATZEKO EFEKTU-KOMERTZIALA	15.000		
Erabilgarria	11.600		
570 KUTXA	1.600		
572 BANKUAK	10.000		
AKTIBOA GUZTIRA	523.200	PASIBO GUZTIRA	523.200

Maniobra-funtsak enpresaren finantza-oreka definitzen du, epe laburrean. Era berean, Ondare garbia + pasibo ez-korrontea ken aktibo ez-korrontea ekuazioak enpresaren epe luzeko finantzaketaren berri ematen digu (epe luzera finantzatutako epe laburraren zatia).

Maniobra-fondoa- = Aktibo korrontea – Pasibo korrientea = (ondare garbia + Pasibo ez-

TEST MOTAKO GALDERAK:

1. c / 2. a / 3.b / 4. b / 5.c / 6. b / 7.c / 8.c / 9.a / 10. b

GALDERAK	EZAGUTZAREN ADIERAZLEAK
Teorikoak	
1	1.3
2	1.1
Problemak	
1	2.15, 2.16, 2.17
2	2.24
3	3.1, 3.7
Test Motako galderak	
1	2.6
2	2.7
3	1.4
4	1.6
5	1.8
6	2.19
7	1.7
8	2.16
9	2.16
10	3.9